Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua

Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Medio
Ambiente y Obras Hidráulicas

AA/ig

FA-IOH-050/19
14-IN

# FORU AGINDUA - ORDEN FORAL

Donostia, 2019ko ekainaren 21a
San Sebastián, a 21 de junio de 2019

2019-2030 Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketako Plan Integral berriak (GHHKPO 2019-2030) – 66/2019 Foru Arauak, martxoaren 20koak, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duenak– VAL-2 ekintzan aurreikusten du Gipuzkoako Ingurumen Gunearen (GIG) jarraipen azterketak egitea, zeinaren Zubietako Balorarizazio Energetikoko Planta funtzionatzen hasiko baita 2019ko urriaren hasieran.

El nuevo Plan Integral de Gestión de Residuos de Gipuzkoa 2019-2030 (PIGRUG 2019-2030) aprobado con la Norma Foral 6/2019 de 20 de marzo, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 25 de marzo de 2019, contempla en su acción VAL-2 la realización de estudios de seguimiento del Centro Medioambiental de Gipuzkoa (CMG), cuya Planta de Valorización Energética de Zubieta entrará previsiblemente en funcionamiento a primeros de octubre de 2019.

Ezagun da nazioarte mailan auzitan jartzen dela zenbait instalazioen balizko eragina inguruko herritarren artean –eta instalazio horien artean daude balorizazio energetiko plantak–. Ondorioz, gai hori eztabaidatua eta aztertua da.

Como es bien conocido, se cuestiona a nivel internacional la presunta influencia de algunas instalaciones –entre las que se encuentran las plantas de valorización energética- en la salud de las poblaciones circundantes, por lo que esa cuestión es un tema debatido y estudiado.

Gipuzkoako Foru Aldundia erabat jabetzen da errealitate horretaz, eta garrantzirik handiena ematen dio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (UE) 2018/851 Zuzentaraua, 2008/98/CE Zuzentaraua aldatzen duena, eta ingurumen araudi guztiak agintzen duten printzipioa honi jarraikiz: ingurumena eta giza osasuna babestea.

La Diputación Foral de Gipuzkoa es plenamente consciente de esa realidad y le concede la mayor importancia, en consonancia con los principios que rigen la Directiva (UE) 2018/851 del Parlamento Europeo y del Consejo, por la que se modifica la Directiva 2008/98/CE sobre los residuos, y toda la legislación ambiental: la preservación del medio ambiente y de la salud humana.

Hori dela eta, 2017tik azterketa bat egiten ari da jakiteko zein den egoera epidemiologikoa GIG, zeina azken fasean baitago, abian jarri aurretik. Kontratuak hiru ikerketa ildo aurreikusten ditu plan inguruan eta kontrol eremu batean.

Por esa razón, desde 2017 se está llevando a cabo un estudio para determinar la situación epidemiológica antes del funcionamiento del CMG que está en su esta última fase. El contrato contempla el estudio de tres líneas de investigación en los alrededores de la planta y en una zona de control.

GIGren instalazioen funtzionamenduaren lehen fasean, komeni da zenbait neurketa egitea ikerketa horren 1 ildoari jarraipena emateko (immisio atmosferikoen neurketa, dela 2,5 mikra –2,5 PM– baino txikiagoak diren partikulei dagokienez, dela dioxina eta furanoak eta antzeko trazu elementuei dagokienez). Neurketa horiek GIG I-en instalazioen kontrolerako beharrezkoak dira, hau da, tratamendu mekaniko-biologikoko plantarako (TMB) eta energia balorazioko planta (EBP), biek emisioak botatzen baitituzte.

En esa fase inicial del funcionamiento de las instalaciones del CMG es conveniente realizar una serie de mediciones de marcado carácter continuista con la línea 1 de la investigación citada, que se centraba en la medición de las inmisiones atmosféricas, tanto en lo que se refiere a las partículas de tamaño inferior a 2,5 micras (PM 2.5) y a los elementos traza, como a las dioxinas y furanos. Estas mediciones son necesarias para el control de la instalación del CMG I, esto es, para la planta de tratamiento mecánico-biológico (TMB), y para la planta de valorización energética (PVE), ya que ambas producen emisiones.

Ondorioz, kontratazio honekin Gipuzkoako Foru Aldundiak instalazio berriak kontrolatu nahi ditu immisio atmosferikoko balioen jarraipena eginez, eta jarraipena eman nahi dio hasierako azterketari. Beraz, landa landa eremu beretan egingo da (eraginpekoa eta kontrolekoa), eta azterketa horretan ezarritako parametro berdinekin.

Por consiguiente, con esta nueva contratación la Diputación Foral de Gipuzkoa pretende controlar las nuevas instalaciones mediante el seguimiento de los valores de inmisión atmosférica y dar continuidad al estudio inicial, por lo que el trabajo de campo se realizará en las mismas zonas (expuesta y de control) y para los mismos parámetros establecidos en dicho estudio.

Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da zerbitzuak kontratatzea hartara immisio balioen kontrola egiteko Gipuzkoako Ingurumen Guneko balorizazio energetikoaren plantaren funtzionamenduaren lehen fasean.

Por ello, se considera necesario contratar los servicios para el control de los valores de inmisión en la fase inicial de funcionamiento de la planta de valorización energética, que forma parte del complejo medioambiental de Gipuzkoa.

Horretarako, Ingurumeneko Zerbitzuak baldintza teknikoen agiria idatzi du (gainerako dokumentazio teknikoarekin batera), aipatutako kontratazioa arautuko duena. Lan horien lizitazio aurrekontua 72.000,00 eurokoa da, gehi 15.120,00 euro BEZ kontzeptuan (% 21), guztira 87.120,00 euro. Kontratua gauzatzeko epea, berriz, 2020ko Iraila amaiaera arte izango da kontratua izenpetzen den egunetik aurrera.

A tal efecto, el Servicio de Medio Ambiente ha redactado el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación citada, cuyo presupuesto de licitación asciende al importe de 72.000,00 euros, más 15.120,00 euros en concepto de I.V.A. (21%), total 87.120,00 euros, siendo el plazo de ejecución del contrato hasta finales de Septiembre de 2020 desde su formalización.

Horregatik guztiagatik, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatu honek

En virtud de cuanto antecede, este Diputado Foral de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

**EBAZTEN DU**

**RESUELVE**

**Lehena.-** Onartzea zerbitzu hauen kontratazio espedientea: IMMISIO BALIOEN KONTROLA GIPUZKOAKO INGURUMEN GUNEKO BALORIZAZIO ENERGETIKOAREN PLANTAREN FUNTZIONAMENDUAREN LEHEN FASEAN (2019/24-HH-ZS). lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 87.120,00 euro da, BEZ barne, y balioetsitako balioa 72.000,00 euro, exekuzio epea 2020ko irailera arte izanik.

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación de los servicios DE CONTROL DE LOS VALORES DE INMISIÓN EN LA FASE INICIAL DE FUNCIONAMIENTO DE LA PLANTA DE VALORIZACIÓN ENERGÉTICA, QUE FORMA PARTE DEL COMPLEJO MEDIOAMBIENTAL DE GIPUZKOA (2019/24-HH-ZS), con un presupuesto base de licitación de 87.120,00 euros, IVA incluido, y un valor estimado de 72.000,00 siendo el plazo de ejecución hasta Septiembre de 2020.

**Bigarrena.-** Onartzea baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoen agiriak, zerbitzu horien kontratazioa arautzen dutenak, alegia.

**Segundo.-** Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación de dichos servicios.

**Hirugarrena.-** Baimentzea kontratazio horri dagokion gastua, 87.120,00 eurokoa, aurrekontuko ondorengo kontusailen kargura:

1.0910.110.227.01.06.2019 ... 43.560 euro.
5.0910.110.227.01.06.2020 ... 43.560 euro.

**Tercero.-** Autorizar un gasto de 87.120,00 euros con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1.0910.110.227.01.06.2019 ... 43.560 euros.
5.0910.110.227.01.06.2020 ... 43.560 euros.

**Laugarren.-** Xedatzea lizitazioa irekitzea, kontratua prozedura irekia sinplifikatuaren bidez

**Cuarto.-** Disponer la apertura de la licitación por el procedimiento abierto simplificado para la

esleitzeko, eta agintzea dagokion iragarkia argitara dadila kontratatzailearen profilean.

adjudicación del contrato, y ordenar la publicación del correspondiente anuncio en el perfil del contratante.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, BI HILABETEKO EPEAN jakinarazpenaren biharamunetik hasita .

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastian, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

Hala ere partikularrek, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi, HILABETEKO EPEAN jakinarazpenaren biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

No obstante las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante este Diputado Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

**INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA,**
**EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS,**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

**Sin.: / Fdo.: José Ignacio Asensio Bazterra**